

Gida informatiboa **Euskara**

Bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak (BHNM) familietan hartzea sustatzeko informazio-gida:

Profesionalentzako eta familia hartzaile potentzialentzako gomendio praktikoak

Argitaratzailea:

Márgenes y Vínculos fundazioa
Calle Ancha 25, 11270 Los Barrios, Cádiz.
Tel.: 956 62 80 39
fmyv@fmyv.org
www.fmyv.org

Zuzendaria:

M. Jesús Fernández Deudero. Márgenes y Vínculos fundazioaren Cádizko adingabeentzako Familia Harrerari laguntzeko Zerbitzuaren zuzendaria.

Erredazkia:

M. Jesús Fernández Deudero. Psikopedagogo.
Lidia Carrasco Rocamonde. Psikologoa.

Dokumentalistak:

Alicia Orellana Álvarez. Gizarte-langilea
Sara Núñez Canoura. Gizarte-langilea

Testuen orrazketa:

Juan Miguel León Moriche. Kazetaria.
José Ángel Ponce Lara. Soziologoa.

Diseinua eta maketazioa:

José Manuel Alcaraz Mendieta. Cromatical.
2022ko abendua.

Itzulpena:

Komaberri Bat S.L.U

ESKER ONEZ

Gida hau Gizarte Eskubideen Ministerioak eta Agenda 2030ek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren % 0,7ko zerga-esleipenaren kontura egindako lan-prozesu baten emaitza da, Andaluzia, Kanariak, Extremadura, Galizia, Madrilgo Erkidegoa, Murtzia eta Valentiako Erkidegoetan eta Ceutako hiri autonomoan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu egindako elkarrizketen bidez gida honetan parte hartzea onartu duten hainbat arlotako (publikoak eta pribatuak) pertsona ugari. Beren denbora oparitu eta arlo horretan duten esperientzia eta ezagutza eman digute, eta horrek ikuspegi holistikoa lortzea erraztu du. Oso bereziki, honako hauek emandako laguntza eskertu nahi dugu: Silvia María Dorado Nogueras (Granadako Udala eta Granadako Unibertsitatea (UGR)), Ángeles Fernández Enríquez, (Cádizko Adingabeen Babes Zerbitzua), Mercedes Leal (Extremadurako Haurtzaroko eta Familiako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia), Hermes de la Osa (Madrilgo Haurtzaroko, Familietako eta Jaiotzak Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia), Carlos Chana (Madrilgo Gurutze Gorria), Michel Bustillo, (Voluntarios por Otro Mundo GKEa), Francisco Oliva (ASFACA Canarias), Mónica Castela (Galiziako Gurutze Gorria), Juan Molina eta César Muñoz (AFASODE), Estela Hernández (Mensajeros de la Paz en Canarias), Hassan Handi (Madrilgo Abrazando Ilusiones fundazioa), Soad Benomar (Sevilla Acoge), El Puerto de Santa Maríako Red de Acogida GKEko kide guztiak, Diagrama fundazioa, eta harrera egiten duten familia guztiak, batez ere ADAMCAMEko David (Madril), Daniel (Abrázamekoa, Sevilla) eta Jesús eta Sol (Sevilla Acoge), NNMNA direlakoan familia hartzaile gisa egindako lan handiagatik. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, proiektu honetan parte hartzea onartu duten gazte migratzaile eta tutoretzapeko ohiei, beren testigantza ausardiaz eta adeitasunez eman digute eta. Haiengatik eta haientzat sortu da gida hau.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5. Or.
1. FAMILIA-HARRERA	7. Or.
2. ZERI DEITZEN DIOGU BHNM	11. Or.
3. BHNM-EN PROFILAK ESPAINIAN	13. Or.
4. BHNM-EK JASAN DITZAKETEN ERAGIN PSIKOLOGIKOAK	27. Or.
4.1. MIGRAZIO-TRAUMA	29. Or.
4.2. MIGRAZIO-DOLUA	30. Or.
4.3. ESKU-HARTZEA	31. Or.
5. ARRETA-ZIRKUITUA ETA APLIKATZEN DIREN BABES-NEURRIAK	32. Or.
6. BHNM-AK FAMILIAN HARTZEKO GOGOETA PRAKTIKOAK	39. Or.
FASEA 1: SENTSIBILIZAZIOA ETA FAMILIAK ERAKARTZEA	40. Or.
FASEA 2: EGOKITASUN-ADIERAZPENAREN PROZESUA	45. Or.
FASEA 3: HAUR EDO NERABEA PRESTATZEA ETA FAMILIAN EGOKITZEA	53. Or.
FASEA 4: JARRAIPENA ETA ESKU-HARTZEA	57. Or.
7. INTERESEKO ZERBITZUAK	63. Or.
7.1. ADINGABEEN FAMILIA-HARRERARI ETA FAMILIA HARTZAILEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK	63. Or.
7.2. MIGRATZAILEAK GIZARTERATZERA ETA LANERATZERA BIDERATUTAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK	72. Or.
BIBLIOGRAFÍA	81. Or.

KOADRO ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. **KOADROA:** Familia-harrerako modalitateak Espainian. Egileek moldatua. 9. Or.
 2. **KOADROA:** Familien osaketak. Egileek moldatua. 10. Or.
 3. **KOADROA:** Marokoar haur eta nerabeen profilak, Cabreraren arabera (2005) 20. Or.
 4. **KOADROA:** Marokoar haur eta nerabeen profilak, Iglesias Martínez J. ren arabera , 2009. 21. Or.
 5. **KOADROA:** Bakarrik dauden neska migratzaileen profilak. Egindako elkarrizketetan
lortutako datuak. Egileek moldatua. 22. Or.
 6. **KOADROA:** Haur edo nerabe migratzaileak lortutako egokitzapen-mailaren
kategoriazioa. Egileek moldatua. 24. Or.
 7. **KOADROA:** Marokoar haur eta nerabeen egokitze-profilak eta beharrianak.
Egileek moldatua 25. Or.
 8. **KOADROA:** Saharaz hegoaldeko haur eta nerabeen egokitze-profilak eta beharrianak.
Egileek moldatua. 26. Or.
 9. **KOADROA:** Bakarrik dauden neska migratzaileen egokitzapen-profilak
eta beharrianak. Egileek moldatua. 26. Or.
 10. **KOADROA:** BHNMENTZAKO arreta-zirkuitua. Egileek moldatua. 33. Or.
 11. **KOADROA:** BHNMENTZAKO arreta-zirkuitua (jarraipena). Egileek moldatua. 34. Or.
 12. **KOADROA:** BHNMENTZAKO arreta eta babes-zirkuitua. Egileek moldatua.. . . . 36. Or.
 13. **KOADROA:** Hasieran ebaluatu beharreko haur eta nerabeen garapenaren alorrak. Egileek moldatua. 37. Or.
 14. **KOADROA:** Bizileku-baimena izapidetzeko informazioa. Egileek moldatua 38. Or.
 15. **KOADROA:** Zabalkunde-plan estrategiko bat betearazteko ardatzak. Egileek moldatua 42. Or.
 16. **KOADROA:** Gaikako edukien blokeak, eskatzaileak trebatzeko. Egileek moldatua. 48. Or.
 17. **KOADROA:** Balorazio Psikosozialetan erabiltzen diren tresna metodologikoak. Egileek moldatua. . . . 50. Or.
-
1. **GRAFIKOA:** BHNMENTZAKO kopuruari buruzko datuak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2022ko irailaren 7an
argitaratuak. Egileek moldatua. 9. Or.
 2. **GRAFIKOA:** Afrikako BHNMENTZAKO nazionalitate ugarienak. Egileek moldatua 10. Or.



AURKEZPENA

Márgenes y Vínculos Fundazioa gobernuz kanpoko erakundea da, gizarte-arretan diharduena, eta pertsonen, haurren eta familien eskubideak, babesa, berdintasuna eta ongizatea sustatzen lan egiten duena; 1993. urteaz geroztik, gizarte-ekintzako proiektuak bultzatzen ditu pertsona behartsuenentzat eta/edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenentzat, eta sentsibilizazioan, gizarte-arloko esku-hartzean, ezagutzan eta ikerketan espezializatuta dago, bai eta indarkeria hainbat modutan jasaten dituztenentzako prebentzioan eta laguntzan ere.

Haren ekintza-eremu nagusietako bat **adingabeen familia-harrera** da. 26 urte daramatza lan hori egiten Cádizen eta Sevillan, 1996ko azaroaren 20an fundazioa familia-integratzaile erakunde laguntzaile gisa gaitu zenetik. Hamarkada hauetan ikusi dugunez, nabarmen ugari dira migrazio-fluxuak, eta Europara ekarri dituzte, beren familia edo legezko tutorerik gabe, bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaile (BHNM) asko; horren ondorioz, haur eta nerabe horien herrialde hartzaileetan, besteak beste Espainian, egoitza-harrerako zentroen ordeko harrera-ereduak babestu eta sustatu behar izan dira. Kasu horretan, adingabe horien ongizate osoa bermatuko duen familia-harrera.

Espainiaren kasuan, eta haurrei dagokienez, haien interes gorena bilatzea da nazioarteko eta nazioko lege guztien printzipio gidaria. Printzipio horrek bermatzen du haur bati eragiten dioten erabaki eta ekintza guztietan (errefuxiatuak eta desplazatuak, herrialderik gabeko haurrak eta asilo-eskatzaileak barne) haien interes gorena kontuan hartzea, bereziki familiaren batasunaren printzipioari, haien ongizateari eta garapen sozialari, biziraupenari eta segurtasunari dagokienez.


1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren hitzaurrean, adierazten da familia gizartearen funtsezko taldea dela, eta bere kideen hazkunderako eta ongizaterako ingurune naturala dela. Familia-harreraren aldeko lehentasunak, egoitza-harreraren aurrean, adostasun legal, zientifiko eta profesional handia du; izan ere, Espainian, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearekin egindako lege-erreformaren testuinguruan, bai adingabea jatorrizko familian mantentzea, bai familia-harreraren lehentasuna egoitza-harreraren aurretik, hori ezinezkoa bada, adingabeak babesteko sistemaren printzipio gidariak dira.

Erakundeen konpromisoa gorabehera, eta legeak eskatzen duenaren eta adostasun zientifikoak eta profesionalak iradokitzen dutenaren aurka, egoitza-harrera da oraindik babes-neurri erabiliena, eta, beraz, ez da lortu eredu aldaketa. Oraindik ere oso handia da babes-sistemak artatuta egoitza-harreran dauden adingabeen kopurua; eta, BHNMen kasuan, egoera hori are larriagoa da, kasuen ehuneko 99an gertatzen baita.

Horrek agerian uzten du azertu beharra dagoela multzo horretako haur eta nerabeen familia-harrerak nahiko konplexuak izan daitezkeen suertatzen ari diren alderdiak. Ildo horretan, azterketa bat egitea, non identifika daitezkeen zergatik nagusitzen den, BHNMen kasuan, egoitza-harrera familia-harreraren gaineratik, zer alderdi har litezkeen kontuan eta zer alderdi hobe litezkeen, lagungarria litzateke adingabe horien familia-harrera sustatzeko esku-hartzerako bide eta mekanismo eraginkor eta funtzionalak ezartzeko, arrakasta bermatuta.

Gida honen helburua profesionalei eta familia harreragileei zuzendutako material bat egitea da. Material horretan kontuan hartu beharreko jarduketa-mekanismo garrantzitsuenak bilduko dira, eta hartutako adingabeen beharrei arreta egokiagoa ematea ahalbidetuko dute, bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileen familia-harreraren garapen egokia eta arrakasta bermatuz.

Bestalde, material honek adingabe horien errealitatea ezagutarazteko eta, oro har, herritarrak sentsibilizatzeko ere balio behar du, kultura inklusiboagoa sortzeko xedez. Kultura horretan, adingabe horiekin askotan lotzen diren ikuspegi negatiboak eta bulo xenofobo eta arrazistak, hala nola delinkuentzia, ikuspuntu desberdin batekin hautsiko dira, errealitatearen irakurketa zehatzagoan eta haien idiosinkrasiaren ulermenean oinarrituta. Era berean, eta alderantzizko zentzuan, kultura inklusiboagoaren aldeko sentsibilizazioa haur eta nerabe talde horri ere aplikatu daioke, hori baita ghettoak sortzea saihesteko eta kulturartekotasuna bultzatzeko modu bakarra, herritar guztiak diskriminaziorik gabe Estatuko lurraldean integratzen laguntzeko, haien jatorria edozein dela ere.



1. FAMILIA-HARRERA

Familia-harrera, babes-neurrigisa, azaroaren 11ko 21/1987 Legearekin artikulatu zen lehen aldiz Espainian. Lege horrek Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen artikulua jakin batzuk aldatzen ditu, adopzioari dagokionez. Haren 173. artikulua haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen du uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatu zuen, eta honela idatzita geratu da: "Familia-harrerak berez dakar adingabeak erabateko partaidetza izatea familiaren bizitzan, eta betebeharrak ezartzen dizkie adingabea etxean hartzen dutenei, hain zuzen, adingabea jagon, harekin egon, hura elikatu, hezi eta prestakuntza integrala ematekoa ingurune afektiboan. Desgaitasunen bat duen adingabearen kasuan, jarraitu beharko du ematen zaizkion laguntza espezializatuak jasotzen edo bere beharretara hobeto egokitzen diren beste batzuk hartu beharko ditu".

Familia-harrera, beraz, haurrak babesteko neurria da, eta adingabe bat familia zabal batean edo besteren familia batean bizitzea eta integratzea ahalbidetzen du, aldi baterako edo etengabe gurasoengandik edo tutorengandik banandu behar denean, tratu egokia jasotzen ez dutelako. Familia-gunetzat hartu behar da adingabeek, ingurune seguru eta beren behar sozioafektibo, kognitibo eta fisiologikoetara egokitutako ingurune batean normaltasunez garatu ahal izateko, beharrezkoak diren laguntzak ematen dituen. Familia motei dagokienez, harrerak honela osa daitezke, definizioan azaldu den bezala:

- **Familia zabala:** Adingabearen eta harreraren eskatzaileen arteko odol-ahaidetasunezko edo hirugarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunezko harremana duena. Hau da, familia zabaltzat har daitezke aldez aurreko harreman afektibo baten ondorioz (hurbileko familia edo antzekoa) adingabearekin lotura duten pertsonak.²

¹ Familia Harrerari eta Adopzioari buruzko azaroaren 12ko 282/2002 Dekretuaren 3.2 artikulua.

² 26/2015 Legearen 3. xedapen gehigarria. Familia-harrerako estaldura-, kalitate- eta irisgarritasun-irizpideak.

- **Besteren familia:** Adingabearen eta harreraren eskatzaileen artean ahaidetasunik, odolkidetasunik edo ezkontza-ahaidetasunik ez duena, eta hasieratik lotura batzuk eraiki behar dituena.

Harrera-modalitateei dagokienez³, helburuaren eta iraupenaren arabera ezartzen dira:


- **Larrialdietako familia-harrera:** Batez ere sei urtetik beherakoentzat; gehienez ere sei hilabeteko iraupena izango du, dagokion familia-babeserako neurria erabakitzen den bitartean.
- **Aldi baterako familia-harrera:** Iragankorra izango da, adingabearen egoeraren ondorioz adingabea bere familian berriro integratzea aurreikusten delako, edo babes-neurri egonkorrago bat hartzen den bitartean, hala nola familia-harrera iraunkorra edo adopzioa. Harrera horrek gehienez ere bi urteko iraupena izango du, salbu eta adingabearen interes gorenagatik neurria luzatzea, –familiara berehala berrintegra daitekeela aurreikus daitekeelako– edo behin betiko beste babes-neurri bat hartzea komeni bada.
- **Familia-harrera iraunkorra:** Aldi baterako harreraren bi urteko epea amaitzean eratuko da, familian berriro integratzea ezinezkoa delako, edo zuzenean, premia bereziak dituzten adingabeen kasuan edo adingabearen eta haren familiaren inguruabarrengatik hala komeni denean. Erakunde publikoak epaileari eskatu ahal izango dio harreragile iraunkorrei eman diezazkiela beren erantzukizunak betetzea errazten duten tutoretza-ahalmenak, betiere adingabearen interes gorena kontuan hartuta.

Aldi berean, besteren familietan harrera egin ahal izango da, 26/2015 Legearen 20. artikulua, ezartzen den eran:

- **Espezializatua:** Familia batean egiten denean, baldin eta familiako kideren batek zeregin hori betetzeko kualifikazio, esperientzia eta prestakuntza espezifikoa eta erabateko prestasuna baditu premia edo zirkunstantzia bereziak dituzten eta adingabeei dagokienez, eta horren truke dagokion konpentsazio ekonomikoa jasotzen badu, inolako lan-harremanik eragin gabe.

³ Kode Zibilaren 173 bis artikulua, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatua.

- **Profesionalizatua:** Familia batean egiten denean, baldin eta familiako kideren batek zeregin hori betetzeko kualifikazio, esperientzia eta prestakuntza espezifikoak eta erabateko prestasuna baditu premia edo zirkunstantzia bereziak dituzten eta adingabeei dagokienez, eta horren truke dagokion konpentsazio ekonomikoa jasotzen badu, hartzaileak edo hartzaileek lan-harremana dutelako erakunde publikoarekin.



1. KOADROA: Familia-harrerako modalitateak Espainian. Egileek moldatua.

Hobeto ulertzeko, harreraren izaera zehazten duten hainbat kontzeptu azaldu nahi ditugu, bakarrik dauden haur eta nerabeak bi modalitate hauetako batean har baitaitezke:

- **Familia-harrera homokulturala:** Harrera-familiak hartutako haurren edo nerabeen kultura, tradizio eta hizkuntza berberak dituztenean edota talde etniko berekoak direnean gertatzen da.
- **Familia-harrera heterokulturala:** Harrera-familiak eta hartutako haurrek edo nerabeek kultura, tradizio eta hizkuntza desberdinak dituztenean, eta talde etniko-erlijioso berekoak ez direnean gertatzen da.

Azkenik, familia-harrerak zein familietan egin daitezkeen azaldu nahi dugu, hori baita baliabidean interesa duten pertsonak adierazi ohi duten zalantza nagusietako bat:

- **Guraso bakarreko familia:** Familia-nukleoa guraso batek (aitak, amak edo legezko tutoreak) eta seme-alaba batek edo gehiagok osatzen dute.
- **Bi gurasoko familia:** Familia tradizionala edo nuklearra esan ohi zaio, eta bi gurasoek eta seme-alaba batek edo gehiagok osatzen dute. (Familia heteroparentalak).

- **Familia homoparentala:** Seme-alaba baten edo gehiagoren (biologikoak edo adoptatuak) guraso diren bi gizonen edo bi emakumeen osatzen dute.



2. KOADROA: Familien osaketak. Egileek moldatua.

Estatuko legeak ez du inolako bereizkeriarik egiten familia harreragile gisa gaitzeko interesa duten familien osakerari dagokionez, guztiak baitituzte aukera eta eskubide berberak.

Hala ere, guraso homoparentalak diren familientzat bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak hautatzeko bideragarritasunari eta komenigarritasunari buruzko azterlana egin beharko litzateke kasu bakoitzean, adingabe horien jatorrizko herrialde batzuetan homosexualitatea debekatuta baitago, baita legez zigortuta ere. Hori gainditzeko zaila den oztopo kulturala izan daiteke zenbait adingaberentzat, eta harreran eragin negatiboa duen arrisku-faktorea izan daiteke, porrota ekar baitezake.



2. ZERI DEITZEN DIOGU BHNM

BHNM siglek bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileei egiten diete erreferentzia, eta apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuan definituta daude. Horren bidez, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren erregelamendua onartzen da: “hemezortzi urtetik beherako atzerritar bat, Espainiako lurraldera heldu eta bere ardura duen heldu batekin etorri ez bada, legez edo ohiturari jarraikiz, adingabea babesik gabe geratzeko arriskua dagoela ikusten bada, heldu arduradun hori adingabeaz benetan arduratu ez den bitartean, bai eta behin Espainiara iritsita egoera horretan dagoen adingabe atzerritar oro ere” (aipatutako Errege Dekretuaren 189. art.).

Adingabe horiek aipatzeko orain arte gehien erabili den terminoa gaztelaniazko mena akronimoa (bakarrik dauden adingabe migranteak) izan da. Terminoa eremu juridikoan sortu zen, eta izaera neutrala zuen, baina azken hamarkadan konnotazio negatiboa duela ikusi da, kriminalizatu eta gizatasunik gabe uzten dituen eta gizarte-bazterketara bultzatzen dituen. Estigmatizatzen ez jarraitzeko eta haur eta nerabe oso zaugarriak direla berriz adierazteko, akronimo hori erabiltzeari uzten ari zaio. Beste adierazpen batzuek ordeztu dute. Esaterako, hala nola mugitzen diren haurrak (gaztelaniaz Nem), edo bakarrik dauden adingabe migratzaileak (gaztelaniaz Mms), azken hori Barne Ministerioak bultzatuta. Gida honetan, BHNM siglak erabiltzen ditugu (bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak), migratzaile izateagatik adingabe-talde hori multzo jakin batera mugatzeko edo diskriminatzeko asmorik gabe.


Haur edo nerabe bakoitzaren migrazio-proiektuaren jatorria alde batera utzita, guztiek dute ezaugarri komun bat: migrazio-esperientzia osoan (jatorriaren, igarotzearen eta helmugaren testuingurua) jasaten duten kalteberatasun bereziko egoera. Denek uzten dituzte beren etxeak, familiak eta testuinguru naturalak (pobrezia, gatazka belikoa, gurasoen tratu txarrak, itxaropenik eza, etab.), eta oso arrisku handiko egoeretan jartzen dira (edozein motatako indarkeria, esplotazio ekonomiko edo sexuala, pertsonen salerosketaren biktimak, edo bizirauteko edo kaleko egoeretarako esperientzia traumatikoak bizitzea), baita hil ere, ezagutzen ez duten eta ulertzen ez duten kultura eta gizarte batean zalantzazko etorkizunari aurre egiteko, batzuetan ez baitaie behar bezala artatzen legeak eskatzen duen moduan, eta horrek haien arrisku edo kalteberatasun egoera iraunarazten du.

Horregatik, ezinbestekoa da haur eta nerabe migratzaileen eskubideei heltzea Haurren Eskubideen Konbentzioaren printzipioen gainean; izan ere, haur eta nerabe guztiek merezi dute babesa beren interes gorenaren arabera jasotzea, oso konplexua edo zaila izan arren, haurtzaroari buruzko legearen eta atzerriartasunari buruzko legearen bidez artikulatuta, eta babesten dituzten giza eskubideen babesa bermatuta, eta une oro errespetuz tratatuta, edozein dela ere haien migrazio-estatusa, nazionalitatea, kultura-identitatea, sexua, arraza edo erlijioa. Premia hori kontuan hartuta, inoren kargura ez dauden adingabe atzeritarren esparru-protokoloan garatzen diren jarduerak Espainiak adingabeen eskubideei buruz berretsitako nazioarteko tresna juridikoetan jasotako printzipio eta arauetan oinarritzen dira, eta, bereziki, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 3.1 artikuluan, honako hau xedatzen baitu: «Gizarte-ongizateko erakunde publiko edo pribatuak, auzitegiek, administrazio-agintariek edo legegintza-organismoek haurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan, haurren interes gorena hartuko da kontuan, lehentasunezko baldintza gisa».

⁴ Haurren Eskubideen Batzordearen 6. ohar orokorra 20005eko irailaren 1ean erabaki zen, eta, bertan, «bakarrik dauden adingabeen egoera bereziki kaltebera» adierazten da, eta ezartzen da «adingabearen interes gorenaren kontzeptua konplexua dela, eta haren edukia kasuz kasu zehaztu behar dela».

⁵ Haurren Eskubideen Batzordeak 2013ko otsailaren 1ean egindako 14. ohar orokorraren arabera, «adingabearen interes gorenaren kontzeptua konplexua da, eta edukia kasuz kasu zehaztu behar da».

⁶ Ebazpena, 2014ko urriaren 13koa, Idazkariordetzarena, bakarrik dauden adingabe atzeritarrekin lotutako zenbait jarduni buruzko esparru-protokoloa onartzeko Erabakia argitaratzen duena.



3. BHNM-EN PROFILAK ESPAINIAN


Inoren kargura ez dauden haur eta nerabe migratzaileen profilak faktore mota hauek zehazten dituzte: **jatorriari dagozkionak**, hala nola herrialdea, etnia, adina, sexua, ingurunea (landakoa edo hirikoa), hezkuntza-profila, profil sozioekonomikoa, araudiak bereganatzea, hartutako alderdi kulturalak eta ematen dien garrantzia, beren berdinak direnen taldearekin duten harremana, migrazio-proiektuaren motibazioa (borondatezkoa edo nahitaezkoa den); **ibilbidea/helmugari dagozkionak**: migrazio-proiektuan eta helmugako herrialdera iristean izandako esperientziak (esperientzia traumatikorik izan duen ala ez); eta **nortasunari dagozkionak**: banakako ezaugarriei, egoera pertsonalari eta familia-egoerari (famihiarekiko harreman mota eta hartutako rola), autonomia-mailari eta erantzukizunari buruzkoak.

Profil guztiak ezagutzeak adingabe bakoitzak bere beharrian eta ezaugarrien arabera behar dituen arreta eta baliabide egokienak ezartzea errazten du. Espainiara migratzen duten BHNMen kopurua eta nazionalitatea jakiteko, Estatuko Fiskaltza Nagusiak (aurrerantzean, EFN) 2022ko irailaren 7an argitaratutako azken memoria kontsultatu da, non 2021eko ekitaldiari buruzko datuak jasotzen diren.

Espainiako BHNM kopuruan, erregistratutako biztanleriaren desberdintasun handia aurki dezakegu, erregistroa egiten den tokiaren arabera (EFN, edo bakarrik dauden adingabe migranteen erregistroa). Horrela, Espainian 2021ean egindako adingabe atzerritarren gutzizko zenbaketa honako hau izan zen:

- 3.048 BHNM (EFNren arabera); horietatik 2.934 mutilak dira, eta 114 neskak.
- 9.294 BHNM (bakarrik dauden adingabe migranteen erregistroaren arabera), horietatik 8.282 mutilak dira, eta 1.012 neskak.

⁷ Urte judizialaren hasieran, urte judizialari hasiera emateko ekitaldi nagusian, 2022ko irailaren 7an, Álvaro García Ortiz Estatuko fiskal nagusiak Gobernuari aurkeztutako txostena, 727-730. or. <https://www.fiscal.es/documents/20142/0/MEMFIS22+%281%29.pdf/6573e7b3-f1e6-d3e6-2b0b-f07123e41c0a?t=1662544190402>



1. GRAFIKOA: BHNM kopuruari buruzko datuak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2022ko irailaren 7an argitaratuak. Egileek moldatua.

Horrek agerian uzten du zaila dela jakitea zein den gure mugetatik urtero sartzen diren eta tutoretzapean dauden BHNMen kopuru zehatza, eta, beraz, ezartzea zer baliabide erreal jarri behar dituzten martxan administrazio publikoek haurren eta gizarte-politiken arloan, haur orok behar duen babesa eta arreta behar bezala emateko.

Haurren Eskubideen Batzordea BHNMen bateratze estatistikoa eskatzen ari zaio Espainiari, adinaren, sexuaren eta jatorri etnikoaren arabera banakatutako datuen bidez, eta gaur arte ezin izan da egin, nahiz eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak⁸ ahaleginak egin dituen, 2021eko ekitaldi fiskalari dagokion 1. taulan ikus daitekeenez.


Gaur egun, Espainian, inoren kargura ez dauden adingabe asko kalean bizi dira; dela poliziak oraindik atzeman ez dituelako eta adingabeen fiskaltzaren esku jarri ez dituelako, babes-neurriak hartzeko; dela adingabeak babesteko zentroak utzi dituztelako, migrazio-proiektuarekin jarraitzeko (batez ere, Espainia igarotze-herrialdea izan ohi delako eta azken helmuga Erdialdeko Europa delako), dela adingabeak arauak ulertzeko eta horiei erantzuteko zailtasun nabarmenak dituelako. Egoera hori dela eta, oso populazio zaurgarria da, eta gizarte-bazterkeriaren muturreko mailan dago. Adingabe horiek elkarren laguntza bilatzen dute, eta urik eta argirik gabeko eraikin abandonatuetan babesten dira, osasungaitzasun eta prekarietate baldintzetan, eta, elikatzeko baliabide ekonomikorik ez izateaz gain, haien osasuna nabarmen hondatzen da.

⁸ Infancia en datos webgunean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak eta Unicef Espainiako Batzordea Fundazioak sortua, Estatistikako Institutu Nazionalarekin lankidetzan. Hemen: Vidal, M. D. O. (2021). Los retos que debe asumir España tras las recomendaciones del Comité de los Derechos del Niño en el marco de los menores extranjeros no acompañados: hacia un nuevo sistema de protección de la adolescencia (Espainiak hartu behar dituen erronkak, Haurren Eskubideen Batzordearen gomendioen ondoren, bakarrik dauden adingabe atzerritarren esparruan: nerabeak babesteko sistema berri baterantz). Revista electrónica de estudios internacionales (REEI), (41), 16.

Zirkunstantzia horiek denboran zehar irauteak eragiten du adingabe horiek helburu erraza izatea zuriaren salerosketako mafientzat, droga-trafikatzaileentzat eta/edo proxenetentzat. Beraz, arazo handi baten aurrean gaude, ez ordena publikoari dagokionez, batzuetan adierazten den bezala, baizik eta adingabeen talde hori behar bezala babesteko baliabide eraginkorrak kudeatu, antolatu eta hornitzeari dagokionez. Hausnartu beharko da ea babes-arloko prozedurak, bitartekoak eta baliabideak adingabe horien beharretara egokitzen diren ala ez, eta, hala ez bada, zer eta zeintzuk bultzatzea eta gara daitezkeen horretarako.

Aberriratzek, adibidez, nekez egin daitezke, jatorrizko herrialde jakin batzuekin oso koordinazio urria dagoelako adingabe migratzailearen familia-egoerari buruzko informazioa biltzeko. Informazio hori beharrezkoa da kasu partikular bakoitzaren ebaluazioa eta diagnostikoa egin ahal izateko, jatorrizko herrialdean familia berrelkartzeari begira, eskubide guztiak beteko direla bermatuta eta adingabearen ondasun gorenean edo jatorrizko estatuak babesten duenean oinarrituta.

Nazionalitateari dagokionez, BHNMen jatorrizko herrialde nagusiak Maroko (1.304), Aljeria (540) eta Mali (381) dira.



2. GRAFIKOA: BHNMen Afrikako nazionalitate nagusiak. Egileek moldatua.

Kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsu bat da herrialde horietan migrazioa eta mugikortasuna kulturalki errotuta daudela eta migrazioaren ikuspegi normalizatua eta positiboa dutela, aberastasun- eta ikaskuntza-aukeratzat hartzen baita. Ikusmolde hori, neurri batean, globalizazioak eta Europako bizi-baldintzei buruzko informaziorako irisgarritasunak baldintzatzen dute, bai eta aurretik migratu duten senide eta lagunek ematen dizkioten onura ekonomiko eta materialek ere; baita sare sozialetatik datorren iruditeria idiliko eta arrakastazkoagatik ere, etorkizun hobea lortzeko asmo pertsonalak elikatzen baitituzte.

Honako hauek dira, besteak beste, haur horiek migrazio-ibilbide bati ekitea onartzeko arrazoiak: beren jatorrizko herrialdeetan ekonomikoki lagundu nahi izatea eragiten dien pobrezia-egoera, familia-harreman hondatuak eta/edo tratu txarrak, senideek erreserbatuta zieten patua (ezkontzak adin txikikoetan), familia-bizimoduari uko egitea edo jatorrizko herrialdean segurtasunik ez izatea. Kasu gehienetan, familiak berak hartzen du migrazio-proiektuaren erabakia adingabearen etorkizuneko inbertsio gisa, eta bidaiaren gastuak partzialki edo osorik finantzatzera iristen da; hala ere, kasu batzuetan, adingabeek hartzen dute migratzeko erabakia, beren kasa.

2. taulan ikus dezakegunez, BHNM horien jatorri nagusiak Maroko eta Saharaz hegoaldeko herrialdeak dira. Bi talde handi horiek banan-banan aztertuko ditugu, bereziki azpimarratuz Maroko eta Cabrerak (2005)⁹ deskribatutako lau profil marokoar ohikoenak; era berean, eta nahiz eta emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino dezente txikiagoa izan, kolektibo hori modu independentean azertu dugu, migrazio-proiektu desberdina baitu.

⁹ Cabrera Medina JC., (2005). *Acercamiento al menor inmigrante (Adingabe immigranteei hurbilketa). Migrazio Politiken Koordinazioko Zuzendaritza Nagusia, Andaluziako Gobernuko Gobernazio Saila.*

Marokoarrak

1. TALDEA:

Migrazio-proiektuaren arrazoiak: nekazari-giroko barrualdekoak datoz. Ez dute helburu argirik beren egoera hobetzeko. Transmittitu dezaketen gauza bakarra da «paperen» bila datozela, horiek joan-etorriko bidaia bat irudikatzen baitute, arrakastaz itzultzeko aukera; printzipioz, hobetzea da asmoa, baina balizko itzulera gogoan dutela, eta itzulera hori arrakastatzat jo daiteke. Emigratzeko ekimena haiengan sortua da, batez ere uda garaian, beren herrixkako beste pertsona batzuen arrakasta ikusita.

Maila sozioekonomikoa: aduar izeneko herrixketakoak dira, non etxeek, normalean, ez duten dutxarrik edo bainugelarik. Gurasoak salmenta prekarioan aritzen dira zokoetan, garraio-lanetan eta nekazaritzan. Aita zaharragoa da, eta horrek beste aukeraren bat bilatzera bultzatzen ditu gizonak.

Autonomia eta erantzukizuna: diziplinatuak dira eta arau-sistema bati modu positiboan erantzuten diote. Ez dute beren helburuak lortzeko proiektu zehatzik, eta ez dute ezagutzen dauden lekuaren legeria edo esparru berria Gainerako adingabeei dagokienez, ez dira gatazkatsuak eta, oro har, ez dute gizartearen aurkako portaerarik.

Herrialdera sartzeko modua: Tangerretik kamioiz etorri ohi den talde bat da, hiri horretako kaleetan denbora zehaztugabea igaro ondoren. Familiarekiko harremana ez da aitak abiatzeko ekonomikoki laguntzeko bezain estua.

Eskolaratzea: heterogeneotasun handia dago, baina, oro har, bigarren hezkuntza hasi aurretik utzi dute eskola, 15 urterekin. Oso kultur maila baxua dute.

2. TALDEA:

Migrazio-proiektuaren arrazoiak: aurrekoaren eremu bereko taldea da, baina ezaugarri bereizgarri bat du: aita, etxera dirua ekartzen duen pertsona bakarra, zahartzen hasten den familia bateko lehen gizonak izatea. Batzuk adinez nagusiak dira, edo adin-nagusitasunera iristear daude. Haurra ondasun materialtzat hartzen da eta dagoeneko ekoizteko prest dagoela ulertzen da. Adingabeari ekonomikoki laguntzen diote. Kasu batzuetan, beste senitartekoren batek ere laguntzen du, edo adingabeak berak aurrezten du bere lanetatik, udan edo sasoiak.

Maila sozioekonomikoa: barnealdeko aduar-etakoak dira, era berean, baina, kasu honetan, gurasoak lursailen baten jabe dira, nahiz eta ez beti.

Autonomia eta erantzukizuna: bidaiaren proiektua ondo zehaztuta daukate, eta, batzuetan, gainerakoa ordainduta ere bai. Beren helburuak lortzen lagunduko dieten senideak dituzte zain. Pertsona heldutzat hartzen dituzte beren gizartean, eta haiek badakite beren itzaropenen helburu direla, bai etxetik irteteagatik, bai etorkizuneko ekarpen ekonomikoagatik. Gainerako adingabeei dagokienez, ez dira gatazkatsuak eta, oro har, ez dute gizartearen aurkako portaerarik, baina zentzura iristean beren nahiak gauzatzeko irrikaz daude, eta horrek baldintzatu egiten du zentroan duten etapa. Ez dute eskola batean geratu nahi, nahiz eta diziplinatuak izan eta kanpoko arau-sistema bati modu positiboan erantzuten dioten.

Herrialdera sartzeko modua: Tangerretik itsasontzi pneumatikoetan etortzen dira, landa-eremuan denbora zehaztugabea igaro ondoren, noiz ontziratuko dituzten zain. Bidaia bakarti horrek argi uzten du heldutzat hartu direla, bakarrik eta diru kopuru handiarekin bidaiatu baitute sorterriko herrixkatik edo hiritik Tangerrera. Udan gehiago etortzen dira halako migranteak.

Eskolaratzea: heterogeneotasun handia dago. Oro har, zortzigarren mailara arte egon dira eskolan, 15 urte bete arte. Adin hori helduaroaren printzipiotzat har dezakegu. Oso erantzun ona ematen diote hezkuntza-baliabideari.

3. TALDEA:

Migrazio-proiektuaren arrazoiak: hiri handien inguruetatik datoz (Tanger, Casablanca...). Emigrazioaren arrakastaren berri badute, eta, bizi duten alfer-giroan (eskola uztea, lana uztea, familia okupatua, oro har), horren aldeko apustua egiten dute. Adingabe ernegatuagoak dira, eta erreferente ekonomikoak hobekuntza pertsonala da, ez familiarena. Gure herriaren esparru juridikoa ezagutzen dute, lagunak dituztelako hemen, baina ez dute seniderik izaten Espainian.

Maila sozioekonomikoa: pisuetan bizi diren eta, beraz, hiri-ohiturak dituzten hirien kanpoaldeetako familietatik datoz. Aita behin-behineko langilea izaten da. Ez dute familiarekiko atxikimendurik, eta amak ez du kontrolik izaten.

Autonomia eta erantzukizuna: kaleko bizitzan ondo moldatzen dira. Argi dute hiri handietan lortuko dituztela helburuak (Madril, Bartzelona). Zerbitzuen sektorearekin eta ehungintzako tailerrekin lotutako lanak nahiago dituzte, esperientzia baitute sektore horretan. Indibidualistak dira eta taldearen barruan posizio garrantzitsu bat mantentzeko lehian ari dira; horrek arazoak sor ditzake. Beste adingabe batzuk agerian uzten dituzte, landa-eremukoak izateagatik.

Herrialdera sartzeko modua: normalean portutik paseatzen dute, eta, beraz, irteteko aukera etengabea da eta bat-batean ager daiteke. Haien aukerak kamioia eta, neurri txikiagoan, autobusa dira. Polizoiak ere izaten dira. Ez dute igarotzeko garai jakinik; urte osoan saiatzen dira.

Eskolaratzea: dagoen heterogeneotasunaren barruan, gehiengoa zazpigarren eta zortzigarren ikasturteen artean dago (14 eta 15 urte), hau da, lanean aritzeko moduko adinean. Eskolako baliabideetan gogoz kontra erreazionatzen dute, ez baita haien helburua goizak eskola batean igarotzea.

Migrazio-proiektuaren arrazoiak: besteak baino talde gazteagoa, bai Tangerretik, bai herrialdeko beste hiri edo tokietatik etorritakoak. Erabateko abandonuaren biktimak dira, eta urteak daramatzate kalean, edo, kasurik onenean, Ceutako zentroren batean egon izan dira tarte batean. Talde honetan sar daitezke, halaber, hain babesgabeak ez diren beste adingabe batzuk, emigrazioari moda gisa heldu diotenak, auzoko beste neska-mutil zaharrago batzuek egin dutena ikusita.

Maila sozioekonomikoa: desegituratutako familietatik datoz, non amak bizirik iraun behar duen kalean lan eginez, eta, ondorioz, seme-alabei jaramonik egin gabe. Beste batzuk amaren bikotekide berri baten biktimak dira; kasu horretan, aitaordeak baztertu egin ditu, elkarrekin edukitako edo berak ekarritako haur berrien mesedetan.

Autonomia eta erantzukizuna: kaleko bizitzan ondo moldatzen dira. Toxikomania-arazoak izaten dituzte eta beste adingabe batzuekin bidaiatzen dute, baina hori ez da oztopo izaten beste bide batzuei banaka ekiteko. Hiri handiak dituzte gogoan beren helburuak lortzeko, eta erregularizazioa nahi dute, herrialde honetan geratu ahal izateko, baina hargatik ohiturak aldatu gabe. Beren bizimodua kaletik zentrora eramaten dute, eta, horregatik, gaizki erreakzionatzen dute edozein diziplinaren aurrean (ordutegiak, eskolatzea...). Oso lan prekarioak egin dituzte, hala nola zigarro solteak, klinex-ak, gozokiak eta abar saltzea, eta beste batzuen esplotazioaren biktima dira.

Herrialdera sartzeko modua: lehen urrats gisa, penintsulara igarotzea lortzen duten bitartean, Ceuta hirira joaten dira, han ezagunak izaten baitituzte. Normalean kamioietan, autobusetan edo atoietan iristen dira, edo polizoi gisa. Ez dute garai jakinik igarotzeko, eta urte osoan saiatzen dira. Ez dute inolako harremanik Penintsularekin.

Eskolaratzea: Ohikoena da inoiz eskolatu gabeak izatea. Kasurik onenean, egon baziren, eskola koraniko batean eman zituzten bi urte baino gutxiago. Gaizki erantzuten diote eskolaren baliabideari, eta ez dira gai zerbaiten gaineko kontzentrazioari eusteko. Talde honetako adingabeek ez dakite non dauden, ezagutzen dituzten lekuen artean zer distantzia dagoen eta Espainia zer den.

3. KOADROA: *Perfiles de NNA marroquíes, según Cabrera (Haur eta nerabe marokoarren profilak, Cabreraren arabera), 2005.*

Saharazhegoaldekoak¹⁰

Migrazio-proiektuaren arrazoiak: 16-17 urte izan ohi dituzte. Helmugako herrialdeen errealitatearekin bat ez datozen lan- eta ekonomia-itxaropenak dituzte, Europara migratu zuten senideen eta ezagunen esperientzietan oinarrituta. Jatorrizko herrialdeetan pertsona arrakastatsutzat hartzen dira, eta horrek gazte horiek eta haien familiak migrazioa bultzatzen eta motibatzen ditu.

Haien lehen helburua lan egitea da. **Diru-sarrera handiak lortzea da helburua, dirua bidaltzeko eta familiaren bizi-baldintzak hobetu ahal izateko jatorrian, eta, epe ertainean, jatorrizko herrialdeetara egoera ekonomiko eta laboralean itzultzeko aukeran.**

Bigarren helburua Europako hurbileko senide eta senideekin biltzea da, batez ere, aurretik migrazio-proiektua egin zuten baina gero Espainiara iristen direnean tutoretza beren gain hartzen ez duten osaba-izebekin eta neba-arrebekin. Senide horiek bidaltzen dute dirua helmugako herrialdeetatik, haiek ematen dute informazioa, finantzaketaren zati bat ematen dute eta harremanetan jartzen dira adingabearen patera edo txalupa bidezko bidaiaren “antolatzaileekin” .

Maila sozioekonomikoa: diru-sarrera oso baxuko familietatik datoz. Ordaindutako lan-jardueraren bat egiten dute familiek, eta horietako batzuetan bi gurasoek egiten dute lan. Jatorrizko familien ehuneko txiki batek bakarrik ez du inolako lan edo enplegu ordaindurik. Lehen sektorean lan egiten dute –arrantza eta nekazaritza, batez ere–, baita zerbitzuen sektorean ere, merkataritzan gehienbat.

Autonomia eta erantzukizuna: diziplinatuak dira eta arau-sistema bati modu positiboan erantzuten diote. Nabarmendu behar da adingabe horiek, zentroetan eta, gutxieneko ehuneko batean, familia harreragileekin harrera-egoeran daudenean, familia-harremana ohiko moduan mantentzen dutela, eta jatorrizko familiarekin lotura irmoa dutela.

Herrialdera sartzeko modua: Ordaindutako bidaia batekin etor daitezke, edo legez kanpo, salerosketa-sareen bidez edo pateran, batez ere Kanariar Uharteetara.

Eskolaratzea: Ehuneko handi batek ez du lehen hezkuntza amaitu eta gainerakoak eskolatu gabe daude. Gehienak landa-eremukoak dira.

CUADRO 4: *Perfiles de NNA marroquíes, según Iglesias Martínez J. (Haur eta nerabe marokoarren profilak, Iglesias Martínez J.ren arabera), 2009.*

¹⁰ Iglesias Martínez J., (2009). Migrazioei buruzko ikerketen unibertsitate-erakundea, Comillasko Pontifize Unibertsitatea, Madril. Legaz Cervantes F., Nuevo Sol fundazioaren presidentea. Estudio sobre la migración Internacional de menores extranjeros no acompañados subsaharianos hacia las Islas Canarias (Bakarrik dauden Saharaz hegoaldeko adingabe atzerritarrek Kanariar Uharteetara egiten duten nazioarteko migrazioari buruzko azterketa). Nuevo Sol Madrid fundazioa.

Neskak

Migrazio-proiektuaren arrazoiak: 14-17 urte inguru dituzte. Haien helburua dirua irabaztea da, familiari bidaltzeko. Migrazio-ibilbideak Espainiako, Frantziako eta Alemaniako beste leku batzuetan daude. Ikastetxeetatik ihes egiteko arrazoa lan egin nahi dutela da.

Maila sozioekonomikoa: normalean diru-sarrera oso txikiak dituzten familia-taldeetatik datoz. Gehienak landa-eremuetatik datoz, eta gurasoek nekazaritza-jarduerak egiten dituzte, batez ere.

Autonomia eta erantzukizuna: diziplinatuak dira eta arau-sistema bati erantzuten diote modu positiboan. Autonomia- eta erantzukizun-maila, oro har, berenganatuta dute.

Herrialdera sartzeko modua: mutil batekin (mutil-laguna, neba...) etorri ohi dira, eta gehienbat pateran sartzen dira.

Eskolaratzea: oro har, landa-eremuetatik datozenak ez daude eskolatuta eta ez dute gaztelania ikasi.

5. KOADROA: Bakarrik dauden neska migratzaileen profilak. Egindako elkarrizketetan lortutako datuak. Egileek moldatua.

Kontuan hartu behar da deskribatutako profilak argigarriak direla, baina hainbat aldaera egon daitezke, egoera sozialak aldakorrak baitira jatorrizko, iragaitzako eta helmugako herrialdeetan, azken hamarkada honetan egiaztatu ahal izan dugunez. Honako hauek ere erabakigarriak dira: adingabe batek migrazio-bidaia hasi behar duen adina, zeharkatu behar dituen lekuak, jasotzen dituen laguntzak, bizi izandako indarkeria-mota guztietako egoerak, edo adingabe batek bere familia-etxea uzten duenetik Andaluziako kostalderako (batez ere Gibraltarko itsasarte) edo Kanariar Uharteetarako bidea (horiek dira bide ohikoenak) egitean katean igarotzen duen denbora.

²² SIIS Centro de Documentación y Estudios (2021). Estrategias de sensibilización y captación para el fomento del acogimiento familiar. Revisión autonómica e internacional. (Familia-harrera sustatzeko sentsibilizazio- eta erakartze-estrategiak. Berrikuspen autonomikoa eta nazioartekoa).

Baliabide honetan parte hartzen duten pertsonak haur zaugarrienenganako sentikortasun berezia agertu dute hasieratik; ez dute mesfidantzarik behar bereziren bat duten nerabeei edo adingabeei laguntzeko zenbait denbora-tartetan; trantsizio-etapan helduarorako laguntza izateko nahia adierazten dute, beren bizi-historia eta familia biologikoarekiko kontaktuak uneoro errespetatuz, eta laguntza hori familia biologikoko beste kide batzuegana ere zabaltzen da denborarekin. Horregatik guztiagatik, kolektibo hori familia potentzialen iturri garrantzitsua da adingabe horiek hartzeko.

- Frantsesez, ingelesez eta arabieraz mintzatzen diren pertsonak. Gomendatzen da, halaber, Frantsesez, ingelesez eta arabieraz mintzatzen diren familiak erakartzea, hizkuntza-espezialitateak dituzten familien poltsa bat osatzeko, batez ere 6 urtetik beherako adingabeak artatzeko, lehentasunez larrialdietako familia hartzaile batekin sartzen badira (LFH) (KZren 173 bis artikulua). Adingabearentzat nahiko traumatikoak izan ohi diren lehen une horietan, ezezagunaren aurreko ziurgabetasuna dela-eta, oso garrantzitsua da, jasaten ari den estres-maila murrizteko eta egoera horren eragina arintzeko, hizkuntzaren oztopoa traba ez izatea adingabeari egoera azaltzeko: zergatik dagoen han, familia hori nor den, zer esku-hartze mota egingo den berarekin, eta, era berean, adingabeak bere emozioak adierazteko giroa ezarri ahal izatea. Izan ere, adingabearen hizkuntza jakitea lehentasunezkoa da harrera eratzeko Europako beste herrialde batzuetan, hala nola Alemanian. Han, migratzaileentzako familia-harreraren kultura oso errotuta dago, eta egoitza-harreraren gainetik ere badago.

Xede-biztanleria horri zuzendutako jarduera espezifikoak bi alderditan oinarritzen dira: batetik, biztanleria migratzailearekiko sentsibilizazio eta kontzientziazio soziala, eta, bestetik, pertsona horiek izan dezaketen kulturari, erlijioari eta hizkuntzari buruzko ezagutza. Alderdi horiek ezagutzea funtsezkoa da adingabe horiei arreta hobea eman ahal izateko, eta, aldi berean, adingabea familiari egokitzea erraztuko luke.

Bestalde, **kasu zehatzetan oinarritutako estrategiak** ere gomendatzen dira, batez ere haur eta nerabe horiek harrera egiteko nahia adierazi dutenean. Adingabearen nor den esan gabe, haren historia, ezaugarriak eta premiak azalduko zaizkie harrera egiteko interesa aldeztu aurretik agertu duten pertsoneri.

Azkenik, BHN Mak hartzen dituzten familiek eta tutoretzapeko migratzaile ohiek hitzaldi informatiboetan parte hartzea gomendatzen da; izan ere, kolektibo horrek dituen beharrianak modu irmoan aztertzen dira; haien bizi-esperientziak, askotan gizartean ezezagunak, oso tresna garrantzitsuak dira adingabe horien inguruan sortutako joera xenofoboak desmitifikatzeko eta errealitate horrekiko sentikorrek diren familia harreragileak erakartzeko.

2. FASEA: EGOKITASUN-ADIERAZPENAREN PROZESUA

Egokitasun-adierazpenaren prozesurako balorazio-fasearen helburu nagusia honako hau da: eskatzaileek familia-harrerarako duten gaitasunari buruzko **azterketa eta balorazioa** egitea, haurren eta nerabeen beharrak betetzeko gaitasuna bermatzeko, bai eta hartzaile gisa dituzten betebeharrak betetzea ere.

Fase horrek, era berean, funtsezko hiru une ditu: **informazioa, prestakuntza eta balorazio psikosoziala**, hurrenez hurren eta ordena kronologiko bati jarraituz gauzatzen direnak; hala ere, zirkunstantziek prozesua bizkortzea eskatzen dutenean, prestakuntza eta balorazio psikosoziala gainjar daiteke (informazioa ez, beti ere beste bien aurretik emango baita), eta prestakuntza bera izan daiteke balorazio-prozesuaren kokagunea.

2. FASEA: Informazioa.

Aurrez aurreko informazio-saioak gaian adituek eman behar dituzte, eta haien helburua da harrerari buruzko informazioa eskatzen duten pertsona guztiei ahalik eta informazio pertsonalizatuena eta osatuena ematea. Ekintza hori familiak erakartzeko prozesuaren azken zatitzat jo daiteke.

Funtsezkoa da honako hauek ezagutaraztea: eska daitezkeen prozedura, irizpide eta betekizun guztiak (estatukoa zein autonomikoa) erregulatzen dituen araudia, harreraren xede diren adingabeen ezaugarriak eta premiak, hartu behar dituzten konpromisoak eta harreraren xede diren adingabeen ezaugarriak eta premiak. Horrela, pertsona horiek informazioa jasotzeko duten eskubidea betetzen da, araudian jasotzen den bezala: adingabearen babes juridikoari buruzko lege organikoaren 20 bis artikuluan, alegia.

Eskatzaileek adingabe jakin batekiko interesa agertu badute (kasu espezifikoaren estrategien bidez hautemandakoak), adingabearen profil psikosoziala eta benetako inguruabarrak eta premiak azalduko dira.

Gomendagarria da saio horiek erabiltzea eskatzaileen hasierako itxaropenak benetan izan ditzaketen itxaropenetara eta harreraren izaerara egokitzeko, bai eta planteatuta duten familia-harrerako proiektu zehatz hori benetan haien ezaugarrietara eta gaitasunetara egokitzen den ikusteko, edo, aitzitik, haurrei laguntzeko eta lankidetzako beste modu batzuetara bideratu behar den

Jasotako informazioak, motibazioen azterketak zein planteak daitezkeen gai guztien ebazpenak balio behar dute eskatzaileek familia-harreraren prozesu osoaren ikuspegi holistikoa izan dezaten, erabaki gogoetatsua eta heldua hartzen laguntzeko.

Azkenean interesatuta jarraitzen badute, **egokitasun-adierazpenaren eskaera** egin beharko dute, eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu.

Azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotzen diren bereizkeriarik ezaren printzipio gidariak kontuan hartuta–zeinek bermatzen baitute haur guztiek, salbuespenik gabe, beren eskubideez gozatu ahal izatea inolako bereizkeriarik egin gabe arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelakoengatik, jatorri nazional, etniko edo sozialagatik, egoera ekonomikoagatik, eragozpen fisikoengatik, jaiotzagatik edo haurraren, gurasoen edo legezko ordezkarien beste edozein baldintzarengatik–, eskatzaileek ezin dute diskriminaziorik egin arraza, sexu edo erlijioa direla-eta. Beraz, hasierako informazioan BHNMen ezaugarri espezifikoak sartzeari gomendatzen da, batez ere familiek behar bezala artatzeko izan beharko lituzketen behar eta ezaugarriei dagokienez.

BHNMa familia hartzea sustatzeko, haur eta nerabe horien benetako errealitatearen berri eman behar diegu interesdunei. Izan ere, haur eta nerabe horiek, berez, egoitza-harreratik kanpo geratzen dira (batez ere, adinagatik), eta harrera jaso dezaketenean adingabetzat ikusarazi behar ditugu.

Azkenik, emandako informazio guztia dossier batean jaso beharko da. Dossier hori saioaren amaieran entregatuko zaio, eta, bertan, eskaerari bide emateko baldintzak agertuko dira.

2. FASEA: Familia eskatzaileen prestakuntza.

Eskatzaileen **prestakuntza-fasearen** helburu nagusia da harreraren eskatzaileei beharrezko trebetasunak eta ezagutzak ematea, harreraren eta/edo jatorrizko familian dagoen haurrari dagokionez prozesuan ager dakizkiekeen zailtasunei arrakastaz aurre egiteko.

Horretarako, beharrezkoa da prestakuntza-saioetan familia-harreraren alderdi garrantzitsuak lantzea, hala nola: familia-harreraren ezaugarriak, hartutako adingabeak eta familia biologikoak, adingabea familiara egokitzea eta egokitzea, lotura afektiboa, alderdi juridikoak, banantzea eta harreraren amaiera. Prestakuntza hori oinarritzat izango da familiek egokitasuna eskatzen duten familia gisa osatzeko erabakia hartu ahal izan dezaten; beraz, ez da informazio hutsezko prozesua, baizik eta prozesu konstruktibista eta metakognitiboa, non babes-sistemako adingabeen beharrei erantzuteko dituzten motibazioak, itxaropenak eta gaitasunak ere baloratu ahal izango dituzten.

Prestakuntza hori nahitaezkoa da eskatzaileentzat, eta Administrazio publikoak balorazio psikosoziala egiten hasi aurretik eskaini behar du, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 20 bis artikulua, eskatzaileek alde aurreko prestakuntza jasotzeko duten eskubidea ezartzen duena, betez. Familia zabalaren prestakuntza, kasu askotan, azterlanarekin batera egiten da, edukiak zeharka lantzen baitira balorazio-prozesuan zehar.

Ezaugarri horiek kontuan hartuta, familia-harrerako programak garatzen dituzten erakundeek eskatzaileentzako prestakuntza-plan bat dute, behar bezala egituratua eta antolatua, planifikatutako eduki-multzo adina prestakuntza-saiotan, dagozkien metodologia eta ebaluazio-sistemekin.

Eduki horiei esker, harrera-eskatzaileek baliabidearen hurbilketa errealista izan dezakete, eta babes-sistemako haurren premien aurrean kokatu, jasandako tratu txarren dinamika eta horrek adingabearengan dituen ondorioak ulertu, behar bezala enpatizatu eta prozesu horretan familia gisa duten rola uler dezakete.

Horregatik, BHNMen familia-harrera sustatu nahi bada, beharrezkotzat jotzen da eduki multzo espezifiko bat ematea, adingabe horien migrazioa eta ezaugarri espezifikoak kulturarteko ikuspegi batetik lantzeko. **Kulturartekotasuna** honela definitzen da: "Kultura eta nortasun desberdinen arteko bizikidetzak aktibo eta errespetuzkoa, nortasun propioetan (indibidualak eta taldekoak) oinarrituta eraikitzen dena".²³

Aztertzen ari garen errealitatean, migrazioek azken hamarkadetan izan duten gorakadak kultura-aniztasuna areagotu du, eta hori ezin da inola ere alde batera utzi edo baztertu. Kultura-aniztasun hori gizarte-esparru guztietan agertzen da, eta, beraz, ezinbestekoa da gizartearen esku hartzen duten eragileek (besteak beste, familia harreragileek) kulturarteko gaitasunak eskuratzea, hau da, kulturarteko mundu batean eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren trebetasun kognitiboak, afektiboak eta praktikoak eskuratzea. Kulturarteko gaitasunak identifikatzen du pertsona batek egoki eta malgutasunez jokatzeko duen gaitasuna, beste kultura batzuetako pertsonen ekintzei eta itzaropenei aurre egitean.²⁴

Esparru teorikoa ezinbestekoa da, baina ez nahikoa; gaitasun hori eskuratzeko, pentsamendua, jarrerak eta portaerak eraldatu behar dira nahitaez. Horretarako metodologiarik egokiena **deseraikitze kognitiboa** da: aurretik sortutako mitoak eta ideiak desagitea, historia beste esanahi/karga emozional batekin ikusteko modu berri batera egokitzeko.

Bai familia harreragileek (besterenak/zabalak) bai BHNMe prestakuntza hori jaso behar dute, ulermena eta elkarrekiko errespetua bermatzeko, eta, hala, adingabe horien arreta egokia eta integrazioa errazteko.

²³ Etxague Alcalde, Xabier (2009). Interculturalismo y diversidad. Del grupo social al aula escolar. CREATIVE COMMONS. (Kulturartekotasuna eta dibertsitatea. Talde sozialetik ikasgelara).

²⁴ Aguado, Teresa (2003). Pedagogía Intercultural. Madrid: Ed. Mc Graw-Hill.

Era horretan, gai-multzoek (autonomia-erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera alda daitezkeenek) familia-harrerako prozesuaren eduki garrantzitsuenei heldu behar diete, bai eta kulturarteko gaitasunak eskuratzeko edukiei ere.

PRESTAKUNTZA JURIDIKOA	Lege-esparrua, adingabeak babesteko erakunde-eredua, babes-neurriak, oinarrizko kontzeptuak, familia-harreraren formalizazioa; familia-harreraren ezaugarri bereizgarriak; adingabeen familia-harrerari laguntzeko zerbitzuen eginkizunak; familia harreragileen eskubideak eta betebeharrak; familia-harreraren izapidea eta kudeaketak.
FAMILIA HARRERAREN ULERMENA, MOTIBAZIOA ETA ITXAROPENAK	Babesgabezia-egoeren ezaugarriak; familia-harreraren funtsezko elementuak; babes-sistemako haurren beharrak; familia-harreraren eragile aktiboak: familia biologikoa; familia harreragilea eta profesionalak; familia biologikoaren ezaugarriak; aldaketa nagusiak familia-dinamikan eta igaro beharreko etapak; familia-harreraren prozedura.
ADINGABEA FAMILIA-HARRERAN MOLDATzea, EGOKITzea ETA INTEGRATzea	Adingabearen aurkezpena; adingabearen hasierako sentimenduak eta beldurrak; galera-sentimendua; adingabearen erruduntasuna; adingabearen mesfidantza; egoera zailak konpontzeko estrategiak; egokitze-faseko zailtasunak; familiaren eta adingabearen arteko harremana; hasierako ebaluazioa; talde-lanaren garrantzia.
ADINGABEAREN HARREMANA, LOTURA ETA ATXIKIMENDUA FAMILIA-HARRERAN	Lotura sortzea; atxikimendu motak; afektibitate-loturak kalte emozionala konpontzeko duen garrantzia; adingabearen eta haren familia biologikoaren arteko harremana; adingabearen bizi-historia laguntzeko estrategia; haurren bizi-historia integratzea eta onartzea; hezkuntza-estiloak.
BABES-SISTEMAKO HAURREN EZAUGARRIAK	Babes-sistemako adingabeen profilak; premia berezi nagusiak (psikikoak, fisikoak); tratu txarren ondorio nagusiak; adingabeen beharrak; familien gaitasunak adingabeen beharrei erantzuteko; baliabide nagusiak ezagutzea; gerta daitezkeen gertakari gatazkatsuak eta familia-harreraren horiei aurre egitea.
HARRERAREN AMAIERA: BANAKETA, AGURRA ETA AMAIERA	Adingabearen irteera planifikatzea eta laguntzea; prestakuntza; agurra; banantzearen dolua; adingabearen beldur eta zalantzei aurre egiteko estrategia; adingabearen eta familien emozioak eta sentimenduak; kargua uzteko arrazoiak; familiak behin betiko neurria onartzea.
BHNMM-AK	Migrazioa eta giza eskubideak; haurren abusu- eta esplotazio-sareak; lege-esparrua; migrazio-proiektua; BHNMMentzako arreta-sistema; alderdi psikologikoak, kulturalak eta BHNMen garapenarenak: alderdi bereizleak; haur eta nerabe migratzaileak: genero-ikuspegia, ezaugarriak eta zailtasunak.
KULTURARTEKOTASUN-ARLOKO PRESTAKUNTZA	Topaketa eta bizikidetzak kulturala; oinarrizko kontzeptualizazioak: kultura, kulturartekotasuna; kulturarteko gaitasunak; etnozentrismoa eta erlatibismo kulturala; familia harreragileentzako beharrak eta laguntzak: aniztasun kulturalarekiko jarrera positiboak, komunikatzeko gaitasuna eta gaitasuna; kulturarteko egoeretan gatazkak maneiatzeko gaitasuna; norberaren kulturari buruzko kontzientzia, eta nola eragiten dion errealitateari buruzko ikuspegiari eta haren interpretazioari; baliabideak eta laguntza-sarea.

16.KOADROA: Gaikako edukien blokeak, eskatzaileak trebatzeko. Egileek moldatua.

Bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak (BHNMM) familietan hartzea sustatzeko informazio-gida:
Profesionalentzako eta familia hartzaile potentzialentzako gomendio praktikoak

Multzo horietako gai batzuetan, beharrezkoa da kanpoko familien eta familia zabalen arteko bereizketa egitea; izan ere, modalitate bakoitzaren prestakuntza-beharrak zeharo desberdinak dira, kasu bakoitzean sor daitezkeen zailtasunak markatzen dituzten errealitateei erantzuten baitiete.

Azken urteotan, profesionalei zein familia harreragileei zuzendutako prestakuntza-pakete espezifikoak argitaratu dira, eta hurrengo erreferentzietan kontsulta daitezke.^{25 26}

Prestakuntza amaitutakoan, **kudeaketa ebaluatze inkesta** bat egitea gomendatzen da, prozesu hori ebaluatze. Azkenik, emandako prestakuntza-orduen kopurua egiaztatzen duen **ziurtagiria** ematen da. Ziurtagiri hori adingabeak babesteko eskumena duten lurralde-ordezkaritzetara eta/edo administrazio publikoetara bidaltzen da.

2. FASEA: Balorazio psikosoziala.

Balorazio psikosozialaren **helburua** da pronostiko bat egitea familiak familia-harreraren tipologiek planteatzen dituzten erronkei eta eskakizunei aurre egiteko dituen gaitasunei buruz. Familia bakoitza familia-harrerarako egokia den zehazten du, haren ezaugarrien eta gaitasunen arabera (hartutako adingabeen behar emozionalak, asistentzialak eta hezkuntzakoak asetzeko bermea), bai eta planteatuta duten familia-harrerako proiektu zehatzaren arabera ere. Horretarako, fase honetan, zalantzak eta galderak argitzeko informazioa ematen zaie, eta heltze-prozesuan laguntzen zaie, beren errealitatera ahalik eta ondoen egokitzen den erabakia hartzeko. Balorazio hori psikosoziala da, eta, beraz, psikologo batek eta arlo horretan espezializatutako eta esperientzia handiko gizarte-langile batek batera egingo dute.

Balorazio horiek egiteko erabiltzen den **metodologia** elkarrizketa erdiegituratu bateratuak eta indibidualak eta etxez etxeko bisitak izaten dira. Horietan, arautzeko ardura duen administrazio publikoak eskatzen dituen baldintza guztiak azertu eta egiaztatzen dira. Balorazioa egiteko ardura duen profesional-taldeak beharrezkotzat jotzen dituen elkarrizketa eta jardura guztiak egingo ditu. Esan den moduan egingo dira beti, elkarrizketa sozial eta elkarrizketa psikologikoen bitartez, bai banaka, bai bikoteka, etxez etxeko bisiten bitartez, familia-nukleoko beste kide batzuei edo harrera-proiekturako esanguratsuak diren pertsoneri egindako elkarrizketen bitartez eta beharrezkotzat jotzen diren beste bide batzuen bitartez.

Tresna metodologiko eta teknikoei dagokienez, profesional bakoitzak egokitzen jotzen dituen guztiak erabiltzen ditu balioesteko behar duen informazioa lortzeko.

²⁵ Fondazioni L'Albero della vita Onlus (2019). Promoviendo el acogimiento familiar de niños migrantes: un paquete de formación para profesionales en Europa. Europa (Haur migratzaileen familia-harrera sustatzuz: profesionalentzako prestakuntza-pakete bat Europan.)

²⁶ Proyecto EPIC No. 1 Apoyo a medida <https://www.jpsychoopathol.it/article/sintomatologia-delle-psicosi-maggiori-analisi-fattoriale-di-1891-soggetti-psicotici/>

TRESNA METODOLOGIKOAK	
Sozialak	<ul style="list-style-type: none"> • Autobiografia • Pertsonen arteko harremanetarako protokoloa Ekomapa • Genograma • Diru-sarreraren eta gastuen protokoloa • Etxez etxeko bisitak
Psikologikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Nortasuna ebaluatzeko proba estandarizatuak • Zaintzaile gisa dituzten ezaugarriak ebaluatzeko proba estandarizatuak • Hezkuntza-estiloen profilak (HEP)

17.KOADROA: Balorazio psikosozialetan erabiltzen diren tresna metodologikoak. Egileek moldatua.

Balorazioa amaitzeko, honako hauek igorri dira:

- **Balorazio-txosten psikosoziala** laburpen-dokumentua, egokitasun-adierazpenaren alderdi garrantzitsuak adierazten dituena. Bertan, haurren edo nerabearen gizarte-eta familia-egoera, eskatzaileen profil psikologikoa, hezkuntza-gaitasuna eta haur edo nerabearen afektibitate-, emozio-, hezkuntza- eta oinarrizko zaintza-beharrei behar bezala erantzuteko gaitasuna jaso behar dira. Era berean, honako hauek ere jaso behar dira: harreraren motibazioaren, itxaropenen eta xedearen arteko kongruentzia, esku-hartze profesionala errazteko prestasuna eta gaitasuna, administrazio publikoak ezarritako babes-planaren helburuak betetzea, hautemandako babes- eta arrisku-faktoreak, eta azken balorazio orokorra, non eskatzaileen egokitasuna edo desegokitasuna proposatzen den, zein modalitatetarako baloratu diren eta hartu beharreko adingabearen profila.
- **Proposamena itzultzea:** azken elkarrizketaren bidez, familiari itzuli egiten zaio jasotako informazioa eta hartutako proposamena.

Prozedura hori familia mota biei aplikatu dakieke (besterena eta zabala). Hala ere, balorazioari dagokionez, badira kontuan hartu beharreko alderdi bereizgarriak, hala nola motibazioa eta itxaropenak.

2. FASEA: Familia zabalaren egokitasunaren balorazioa.

BHNMak familia zabalaren hartzeko egokitasun-balorazioak egiteko, honako alderdi hauek kontuan hartzea gomendatzen da:

- Familia zabalak DNA proben bidez frogatu behar du adingabearekin odolkidetasun-maila duela. Beharrezkotzat jotzen da proba hori azkar egitea, egokitasuna baloratzeko prozesua hasi aurretik, adingabeak behar baino denbora gehiago eman ez dezan egoitza-harreraren/larrialdiko/aldi baterako familia-harreraren.

- Familia handiek hizkuntza ondo ez dakiten kasuetan, gomendagarria da balorazioa familiaren hizkuntzan hitz egiten duten profesionalek egitea.
- Egokitasunaren balorazioa egiten duten profesionalek ezagutza zabala izan behar dute haurtzaroaren babesaren, familia-bitartekotzaren eta -integrazioaren, generoaren, kulturartekotasunaren, migrazioaren eta asiloaren arloez. Horrek haien balio eta printzipio kulturaletara egokitutako balorazio egokia egitea erraztuko du, gure kulturakoekiko diferenteak izan baitaitezke.
- Balorazio psikosoziala egiteko, kontuan izan behar da proba estandarizatuek (nortasun-testak eta ahalmenei eta gaitasunei buruzko galdetegiak) mendebaldeko osagai kulturala dutela, eta, beraz, balitekeela ondoriozko balioak haiekiko doitu ez egotea, kulturak desberdinak izateagatik.
- Familia zabal baten egokitasunaren balorazioa adingabe jakin baten familiari egiten zaio, eta, beraz, profesionalek adingabea ezagutu behar dute, adingabeak harrerari buruz dituen motibazioak eta itxaropenak aztertu behar dituzte, eta adingabearen baimen askea eta derrigortzerik gabekoa dutela ziurtatu behar dute (erabakitzeo ahalmena ematen dion adina izanez gero), eta ahalik eta modu egokienean baloratu behar dute, detektatutako babes- eta arrisku-faktore guztiek bermatzen duten adingabearen arreta integrala familian.
- Adingabea hartzeko ageriko interesa.

Azkenik, familia harreragile izateko familiek izan behar dituzten ezaugarriez den bezainbatean, honako hauek lehenesten dira:

- Kulturartekotasuna sustatzen duten tokiko prestakuntza- eta kultura-jardueretan adingabea integratzea ahalbidetzeko eta errazteko gaitasuna.
- Kultura guztien balioa aitortzeko gaitasuna, eta beste kultura batzuekin hitz egiteko eta trukea egitekoa.
- Kultura-taldeen arteko harremanak eta elkarrekintzak sustatzeko interesa eta motibazioa duten pertsonak, kultura anitzeko inguruneetan eraginkortasunez funtzionatzeko gaitasuna garatzeko aukera ematen dutenak.
- Norberaren nortasunaren garapena positiboki baloratzeko gaitasuna, kritikoak izateko aukera eskaintzea eta gizarte demokratiko baten printzipioak bultzatzea.
- Inguruan integratutako pertsonak, haurraren edo nerabearen sozializazio-prozesua errazteko gaitasuna eta interesa dutenak.
- Gizarte-egoera ona (lanekoa, ekonomikoa, osasuna, etxebizitza).

- Kondizio psikologiko egokiak. Afekzio emozionala eragin zezaketen egoera traumatikoak gainditu izana.
- Haurrari edo nerabeari dagokionez: baloratzea ea haurrak edo nerabeak berariaz uko egiten dion bere jatorrizko familia-inguruneari, edo haren erangzunek gurasoekiko ageriko beldurra erakusten duten.
- Adingabearen familia biologikoari dagokionez: kasu bakoitzean baloratu, inguruabarrak kontuan hartuta, eskatzaileen eta gurasoen artean gatazka larria dagoen, bai eta bere burua eskaintzen duen pertsonarekiko edo familiarekiko harrerari gurasoek berariaz uko egiten dioten ere.

2. FASEA: Besteren familiaren egokitasunaren balorazioa.

Besteren familiei dagokienez, eta kontuan hartuta adingabeen adin-tartea –gehienak nerabeak izaten dira–, haien ezaugarri kultural, etniko eta erlijiosoak, eta migrazio-proiektu bati ekitera bultzatu dituzten arrazoiak, familien ezaugarri hauek arrakasta-adierazletzat hartzen dira, familia horiek BHN Mak hartuz gero:

- **Berezko motibazioa** duten pertsonak, **pioneer-aitzindari**²⁷, deiturikoak. Ezaugarri hauengatik nabarmentzen dira: zuzena dena egiteko berezko nahia izatea; gizartea hobetzeko asmo sendoa izatea; komunitatean parte hartuz errealizatuta sentitzea; aldaketari beldurrik ez edukitzea eta egokitzeko aukeretan konfiantza izatea; etorkizunarekiko baikorrak izatea; erantzunak bilatzea eta galdera berriak planteatzea.
- Neraberen baten hazkuntzan alde aurretik esperientziaren bat izan duten pertsonak.
- Adingabeak baldintzarik gabe onartzea, familia-, kultura-, etnia-, erlijio-, genero- eta sinesmen-nortasuna errespetatuz.
- Familia biologikoaren aldeko jarrera eta jatorrizko familiarekin dituen loturak eta harremanak onartzea.
- Jatorrizko familien egoera onartzen duten eta biologia-familiekiko lankidetzarekiko eta laguntzarekiko sentsibilitatea agertzen duten pertsonak.

²⁷ SIIS Centro de Documentación y Estudios (2021). Estrategias de sensibilización y captación para el fomento del acogimiento familiar. Revisión autonómica e internacional.

- Adingabeari migrazio-prozesuan laguntzeko eta gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko motibazioa, adin nagusitasunera iritsi ondoren ere laguntzen jarraitzeko asmoarekin.
- Hizkuntza-gaitasunak eta haurren edo nerabearen jatorrizko kultura ezagutzea. Lehen aipatu dugun bezala, herrialde batzuetan, hala nola Alemanian, familiak adingabearen hizkuntza jakitea funtsezko baldintza da.
- Ahalmenei, gaitasunei eta jarrerei dagokienez: pertsona errealistak eta beren betebeharrak eta konpromisoekin konprometituak; egokitzeko gaitasuna eta arazoak, malguak eta toleranteak konpontzeko gaitasuna dutenak; enpatiarako eta sentsibilitaterako gaitasun ona dutenak, atxikimendu-loturak ezartzeko gai direnak. Jarraibide teknikoekiko eta integrazteko gaitasunarekiko jarrera harkorra eta laguntzearen aldekoa izatea.
- Kultura guztiek herritar guztientzako elementu positibo gisa duten balioa balioestea, bai eta haien arteko elkarriketa eta trukea ere, egungo gizartearen kultura-aniztasuna aitortzeko eta onartzeko modu gisa, eta kultura-talde guztientzat aukera-berdintasuna defendatzeko gaitasuna izatea.

3. FASEA: HAUR EDO NERABEA PRESTATZEA ETA FAMILIAN MOLDATZEA

Adingabea prestatzeko eta familiaren barruan moldatzeko fasearen helburu nagusia hautatutako familia berrian (zabala/besterena) adingabea modu seguru eta fidagarrian sartzea da, familiaren eguneroko bizitzara pixkanaka egokitu ondoren eta adingabearen eta familiako kideen artean nolabaiteko lotura afektiboa ezarri ondoren.

Fase hori, zalantzarik gabe, harrera-prozesuaren barruan garatu beharreko faserik garrantzitsuenetako bat da. Beraz, adingabearekin zein familiarekin esku hartzen duten profesional-taldeen jarraipen xehatua behar da, eta adingabeak behar duen denbora guztia behar du. Fase honetan, funtsezko lau une bereiz daitezke:

3. FASEA: Adingabea prestatzea.

Lehenik eta behin, haur edo nerabea sentsibilizatu behar da familia-harreraren neurriari buruz, prozesu osoari buruzko informazioa emanez (zertan datzan, tipologia, neurriaren helburua, abantailak eta onurak, nola garatzen den, eskubideak, betebeharrak eta konpromisoak, etab.) eta sor dakioken edozein zalantza edo beldur ebartziz, haien ideiak familia-harreraren errealitatera egokituz. Garrantzitsua da haur edo nerabeak bere historia eta egungo egoera ulertzea, eta segurtasun- eta euste-espazio bat eskaintzea, bere emozioak, nahiak, sentimenduak eta beldurrak lantzeko eta adierazteko; alderdi horiek oinarritzekoak eta funtsezkoak dira neurria aldatzeko prestatzeko lanean. Azkenik, harrera egiteko nahia eta onarpena adierazi behar ditu, babes-neurri hau aplikatzearekin ados zaudela adieraz dezan. Horrela, entzuna izateko eskubidea errespetatzen zaio. (Adingabeen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 9. artikulua).

BHNMen kasuan, eta hainbat arrazoiengatik (adinagatik, kulturagatik, hizkuntzagatik, bizi-zirkunstantziengatik, nortasun-ezaugarriengatik, barnerakoitasunagatik, mesfidantzagatik) konplexuagoa izan daitekeen prozesu hori errazte aldera, komenigarria da migrazio-proiektuaren jatorria kontuan hartzea: adingabe migratzaileek helburu komun bera badute ere, hau da, beren jatorrizko herrialdean ez dituzten aukerak bilatzea, ez da gauza bera migrazio-proiektu horren hasiera familiaren proiektu bat izatea, eta, beraz, familiaren bermea eta baimena izatea, edo beren erreferentziazko figurek emandako tratu txar eta abandonuko egoera batetik ihes egitea.

Hala ere, izan dituzten hasierako inguruabarrak gorabehera, horrek ez du salbuesten migrazio-ibilbidean tratu txarrak edo muturreko arriskuko egoerak bizi izana, haien osotasun fisiko eta psikikoa urratu dutenak, eta trauma osteko estresaren nahasmendua (TEN) ere eragin ahal izan dutenak.

Alabaina, familia-harrera bat egokitzeari eta eratzeari begira, alderdi hori bereizlea da:

- Migrazio-proiektua familiarena den BHNMez lotura afektibo egokia eta atxikimendu segurua izan dezakete beren guraso biologikoekin, ez dute tratu txarrak jasan beren erreferentziazko figurengandik, eta migrazio-motibazioa familia biologikoari ekonomikoki laguntzea da, estatus soziala eta familia-harrotasuna lortzeko; beraz, familia berri batean sartzeak beren kultura-nortasuna galtzeko beldurra eragin dezake (familia heterokulturaletan), baita jatorrizko familiek hori gaitzesteko beldurra ere, eta, beraz, familia biologikoarekiko liskarra izateko eta atxikitzeko erresistentziak izateko, ezezagunaren aurrean edozein ziurgabetasun-egoerak berez eragiten duen beldurraz gain.
- Babesgabezia-egoera batetik ihes egiten duten eta familia egituratu eta afektiborik ez duten BHNMez joera handiagoa izan dezakete familiaren figura onartzeko eta harekiko lotura finkatzeko.

Horregatik guztiagatik, eta familia-harreraren neurria errazago onartze aldera, BHNMez honako alderdi hauek lantzea gomendatzen da:

- Adingabe horiekin kulturartekotasuna lantzea, nortasun kulturala galtzeko aukerari izan diezaioketen beldurra arintzeko.
- Garrantzitsua da familia harreragilearen figura migrazio-proiektuari laguntzeko bitartekoa dela uler dezatela, eta era guztietako aukera gehiago izatea ahalbidetuko diola.
- Familia harreragilearen irudi positiboa eta errealitatera egokitua eraikitzea, adingabearen ontasun gorenean eta haren historiarekiko eta jatorriarekiko erabateko errespetuan oinarrituta. Familiak ezin dira jatorrizko familiaren, kulturaren, erlijioaren edo migrazio-proiektuaren mehatxutzat hartu.

- Familia-harrera beren alde baliabidea dela uler dezatela. Gure kostaldera iristen diren BHNMez egoitza-harrera bilatzen dute, beren egoera erregularizatu daitekeen eta, horren bidez, prestakuntza- eta lan-aukera guztiak eman ahal zaizkien baliabidetzat hartzen baitute. Familia-harrerak prestazio berberak ematen dituela ulertzeak, ekintza horiek babesten eta bitarteko diren profesional-talde bat baitute, baliabiderik onuragarriena dela pentsatzen lagunduko lieke, familia-ingurune jatorra baita, per se, edozein adingaberentzako garapen-bide egokiena.

Eta hori lantzeko biderik onena berdinek emandako esperientzien bidez eta neurri hori edo harrera-zentroen ekintzan parte hartzen duten familien esperientzia bistaritzen duten jarduerak txertatzea da. Garrantzitsua da, lan-prozesu horretan, honako hauek egin ahal izatea:

- Jatorrizko herrialde bereko beste adingabe edo pertsona batzuk ezagutzea, tutoretzapean egondakoak, dagoeneko adinez gorakoak, familia-harrerako esperientzia positiboak izan dituztenak.
- Kulturarteko tokiko familia-jardueretan parte hartzea, familia-eredu berriak ulertzen laguntzeko.
- Jatorrizko familietatik bananduta dauden eta beste nazionalitate eta kultura batzuetatik datozen beste adingabe batzuekin harremanak izan ditzaketen familia harreragileen topaketetan parte hartzea.

3. FASEA: Adingabea familia berriari aurkeztea.

Familiak adingabeari buruzko informazio guztia ezagutu behar du, baita bildu ahal izan den edo adingabeak azaldu nahi izan duen historiaren zatia ere, moldatze-prozesua erraztu ahal izateko. Haien gustuak, zaletasunak eta kultura ezagutzeak aukera ematen die hartzaileei adingabea eroso sentiarazteko eta hurbilketa eta komunikazioa errazteko ekintzak planifikatzeko. Hautatutako familiak bermatu behar du haur edo nerabearen beharrei erantzun diezaiekeela, alderdi kulturalak, erlijiosoak, etnikoak eta linguistikoak kontuan hartuta.

Haur eta nerabeen aldetik, gomendagarria da, era berean, hautatutako familiaren funtsezko alderdiak ezagutzea, baita bizi daitekeen ingurunea ezagutzea ere, ohituz joateko eta ziurgabetasuna gutxitzeko. Horrek eragin positiboa izango du moldaketan. Behin horiek ezagututa, adingabearen nahiak eta sentimenduak errespetatu eta aintzat hartu behar dira, eta neurriari baimena eta onospena ematen jarraitu behar du.

Jatorrizko familiarekin harreman osasuntsua duten haur edo nerabeen kasuetan, bi familiek elkar ezagutzea gomendatzen da, jatorrizko familiak familia harreragilea **legitimizatze**ko. Familiekin lan egiten duten profesionalek bideratuko dituzte harreman horiek, eta, hasiera batean, babes-neurri hori zertan datzan ezagutzera emango dute, haren onarpena bilatze aldera, eta, ondoren, bi familien arteko harremana sustatuko dute, babes-neurria sendotzen laguntzeko. Herrialdeak urrun daudenez, kontaktu horiek bideo-deien bidez egiten saiatuko gara, betiere baliabide teknologikoak izanez gero. Familiek bitartekorik ez badute, jatorrizko herrialdean laguntza humanitarioa ematen ari diren nazioarteko erakundeekin lankidetzak-mekanismoak antolatzeak aukera planteatu liteke. Familia biologikoak adingabearen aurrean babes-neurria eta familia harreragilea legitimatzen baditu, adingabearen onarpen- eta adostasun-maila nabarmen handitu daiteke, atxikimenduarekiko jarrera harkorragoa adieraz dezake, eta sor dakizkiokeen liskarrak arinduko lirateke.

Kontuan izan behar dugu haur edo nerabe horietako gehienak kultura islamiarrekoak direla, eta bertan familiaren erakundea erabat sakratua dela, eta batasunean eta anaitasunean oinarrituta dagoela. Senarra da, formalki, horren ordezkaria hezkuntzaren jarraibideak markatzeaz arduratzen den familia-burua, baina intimitatean, etxea zuzentzeaz, seme-alaben hezkuntzaz eta etxeko ekonomiaz arduratzen dena emakumea da; izan ere, adineko emakumeen iritzia familiako errespetatuena izaten da. Gazteek gurasoei obeditzen diete, oso garrantzitsua baita araua errespetatzea, nahiz eta ez ulertu eta ados ez egon, barneratuta baitute beren onerako dela. Seme-alaben zeregina gurasoek ematen dituzten jarraibideak betetzea eta errespetatzea da nagusiki.

3. FASEA: Moldaketa.

Zalantzarik gabe, unerik garrantzitsuenetako bat da. Haren helburua da familiaren eta adingabeen arteko lotura afektiboak pixkanaka ezartzea, eta adingabeak familiaren eguneroko bizitzara egokitzea; familiak, berriz, bere aurreikuspenak egokitu ditu haur edo nerabearen ezaugarri eta beharretara.

Beharrezkoa da prozesu hori **moldaketa-planean** jasota geratzea. Dokumentu horrek modu planifikatuan jasotzen ditu adingabearen eta familiaren artean izango diren kontaktu guztiak, esku hartzen duten agenteak zeintzuk diren, eta planteatutako jarduerak eta haien egutegia. Hala ere, gomendagarria da epeak haur edo nerabeak markatzea, arian-arian egokituko baita eta familian sartzeko beharrezkoa den konfiantza ezarriko baitu. Beraz, harremanak pixkanaka handituz joango dira, intentsitateari eta iraupenari dagokienez, bizikidetzak hasi arte. Kasuan esku hartzen duten profesionalek egin behar dute dokumentu hori, inplikaturako eragile guztiek adostu behar dute, eta babes-arloan eskumena duen administrazio publikoak onartu behar du.

Adingabea familia harreragilera egokitzen hasten denean, etxera bisita bat egiten da, eta harekin eta adingabearekin telefonozko harremanak eta elkarrizketak izaten dira prozesu osoan eta prozesua amaitu ondorengo egunetan.

3. FASEA: Familia-harrera formalizatzea.

Familia-harrera formalizatuko da adingabea familia berrian txertatzearen alde dagoela egiaztatu ondoren eta/edo adingabeak moldaketa-aldia amaitutzat eman eta familia berriarekin bizitzen hasteko nahia adierazten duenean. Familia-harrera indarreko araudiaren arabera formalizatuko da, parte hartzen duten alderdiek aktak²⁸ sinatuz (familia harreragilea eta tutoretza duen administrazio publikoa).

4. FASEA: JARRAIPENA ETA ESKU-HARTZEA

Jarraipenaren eta esku-hartzearen fasearen helburua da harreraren hartutako adingabeak familia harreragilean izan duen bilakaera eta integrazioa ezagutzea eta baloratzea, baita egon daitezkeen beharrak antzematea ere, harreragileei haziera-funtzioak betetzen laguntzeko behar duten euskarri psikosoziala eta hezitzailea emanez. Era berean, funtsezkotzat jotzen da familiei eta adingabeei laguntza eta aholkularitza ematea krisialdian edo esku-hartze espezifikoa behar duten egoera gatazkatsuetan, bai eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza osagarria ere, adingabeen gizarteratzea edo emantzipazioa errazteko.

Horregatik guztiagatik, fase honetan garatutako jardueren helburua da harreraren jarraipena eta ebaluazioa egitea, adingabea familian sartzen denetik behin betiko ateratzen den arte, eta, beraz, egindako esku-hartzeen helburu bakarra da haur edo nerabeen ongizatea bermatzea familia harreragileetan, eta familiei laguntzea harrera-prozesu osoan.

Horretarako, beharrezkoa da erakundeek harreraren jarraipena egiteko enkargua esleitzen dieten profesionalak psikologiaren eta gizarte-zientzien alorrekoak izatea, eta eskarmentu handia izatea babesaren, familia-bitartekaritzaren, migrazioaren, asiloaren eta kulturartekotasunaren arloan. Psikologoek kasuan, delu eta trauma konplexuetan esku hartzen ere esperientzia handia izatea gomendatzen da.

Fase horren barruan, hiru jarduketa-maila bereiz daitezke: **jarraipena**, familia-harrerako hausturak prebenitzeko **esku-hartze espezifikoak** eta espezializatuak, eta familiari **eusteko eta laguntzeko** jarduketak.

²⁸ Parte hartzen duten alderdiek sinatzen duten dokumentuan ezaugarri eta baldintza garrantzitsuenak zehazten dira, hala nola: harrera mota, iraupena, bisita-erregimena eta adingabearen eta haren familia biologikoaren kontaktuak, bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak, eta ematen diren laguntzak.

4. FASEA: Jarraipena.

Jarraipenearako, jarduketa hauek egitea gomendatzen da, betiere prozedurei lotuta badaude eta informazioa biltzeko euskarri teknikoak badituzte:

- **Familia-harreraren jarraipen- eta laguntza-plana** egitea. Plan hori babes-arloan eskumena duen administrazioari bidaliko zaio, onar dezan. Dokumentu horretan, familiaren, psikologiaren, fisikaren, hezkuntzaren eta emozioen arloko alderdien hasierako ebaluazioa jasotzen da.
- Elkarrizketak eta saio psikosozialak harreran dagoen haur edo nerabearekin.
- Elkarrizketak eta saio psikosozialak familia harreragileekin.
- Etxeetara bisitak.
- Familia-harremanen araubidea gainbegiratzea, halakorik balego.
- Jatorrizko familiarekin elkarrizketak eta esku-hartzeak egitea, ahal bada, babes-neurri hori indartzeko edo haur edo nerabearen egoera emozionala hobetzen laguntzeko.
- Haur edo nerabearekin eta familiarekin zerikusia duten profesionalekin eta zerbitzuekin koordinatzea, harreraren jarraipen egokia egiteko beharrezkoak diren gizarte-, osasun- eta/edo hezkuntza-baliabideei buruzko informazioa biltzeko.
- Neurri eta baliabide egokiak sustatzea, familia harreragileen eta adingabeen ezaugarrien eta beharren arabera.
- **Jarraipen-txostenak** egitea eta bidaltzea: Dokumentu bat, adingabeak garapen-eremu guztietan izan duen bilakaera, familiarekiko egokitzapena, adingabearen, familiaren eta ingurunearen arteko harreman-alderdiak eta familiaren bilakaera psikosoziala jasotzen dituen, harreraren garapenari dagokionez. Txosten horien maiztasunak autonomia-erkidego eta hiri autonomo bakoitzak eskumen hori esleituta izatean garatzen eta artikulatzen duen babes-sistemaren bidez arautuko dira.

Aipatu beharra dago familia-harreraren zenbait alderdi espezifiko jorratu behar direla adingabearen erabateko gizarteratzea eta lanerako prestakuntza bermatzeko, behin adin-nagusitasuna beteta marjinalitate- eta gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko.

